

## **Anari**

### **"Zebra"**

Visit "[Zebra](#)" on [MotoLyrics.com](http://MotoLyrics.com)

Lehen guztiari beldur nion ni  
Orain berriz baso itxuari  
Ezagunari baino ezezagunari  
egunak beltz  
gauak zuri  
galderak niri  
erantzunak zuri

nekez nau hainbeste aldatu  
zebra naiz oraindik  
lehen zuria arra beltzez  
ta orain beltza arra zuriz

ta jan ditudan hitzek  
jaten naute oin ni  
urtaroek dena mugatzen  
hau izan ezik

Hau nekez nau hainbeste aldatu  
Zebra naiz oraindik  
Lehen zuria arra beltzez  
Ta orain berriz beltza arra zuriz

Ta ezin zaitudanez ahaztu  
Beharko dut nahastu,  
Nahastu...  
zuria bada, dena zuriz  
Beltza ere berdin  
ez dut maite grisik

Baina noizbait  
Zaldi izan nahi  
Berriz zaldi zuri  
Nahiz ta agian  
Ez naizen izan  
Zebra erdi baizik

Lehen zuria arra beltzez  
Ta orain berriz beltza arra zuriz  
Ta ezin dudanez ahaztu  
Beharko dut nahastu  
Nahastu, nahastu,  
nahastuuuuu.....

Visit [Anari](#) page on MotoLyrics.com, to get more lyrics and videos.

---

[MotoLyrics.com](#) | Lyrics, music videos, artist biographies, releases and more.